

Jakina, salbuespenak ere izan ziren eta, XIX. mendearren hasieran Mogel bezala, XX.enean ere agertu ziren, Bizkaiko euskalkia ez ezik, Euskal Herriko euskara ere ikusten eta aintzakotzat hartzen zuten bizkaitarrak. Euskararen eta Euskal Herriaren osotasunari begira, euskalki gipuzzean ikusi zuten heldulekurik egokiena, eta zuzenak ziren horretarako arrazoiak. Zoritxarrez, askozaz geroago nagusitu zen arrazoi-on indarra.

Zuazo, K (2005), Euskara batua.

Etina ekinez egina.

Donostia: Elkar.

## 1945-1964 EPEA

Ondo ezaguna denez, erabateko geldialdia gertatu zen 1936tik 1945erako epean. Espainiako Gerra Zibila lehenengo, eta II. Mundu Gerra gero, izan ziren arrazoia, eta oso bestelako gizartea agertu zen etenaren osteko garaian. Aldeak alde, 1876an gertaturakoa erreplikatu zen berritro.

Alde batetik, Franco jeneralak diktadura militarra ezarri zuen Espainia osoan, baina Bizkaian eta Gipuzkoan, *herrialde traidore* izendatuetan, izan zen batez ere gogorra: euskararekin eta euskaltasunarekin zertikusia zuen guztia debekatu eta zapaldu zuen (zenbait argibide in Torrealдай 1998, 2000).

Bestetik, berriz, industriaren gorakada gertatu zen, eta horrek ere Bizkaian eta Gipuzkoan izan zuen eraginik biziena. Hazkunde hori dela eta, asko gutxitu zen Ameriketarako emigrazioa, eta asko ugartu Galiziatik eta Espainiako zenbait herrialdeetatik Euskal Herrira zetorrrena.

Baionako portuaren inguruan ere industria koskorra sortu zen 1950az gero, eta Ipar Euskal Herriko barrualdeko jende andanak jo zuen bertara. Dena dela, ez zen atzerriako

emigrazioa eten, baina aldatu egin zen norabidea; Ameriketara gabe, Frantziako hiri hazietara begira jarri zen: Paris, Bordele, Paue...

## 1. Euskara, kultura hizkuntza

Geroz eta gardenago ageri zen gizarte hiritar eta industrialia zela Euskal Herriaren alderdi zabala, eta euskara ere egoera berrira egokitu beharra zegoela. Hori edo, bestela, erdarek jango zioten lekua. Hala ikusi zuten zenbaitrek, eta ezinbestekotzat jo zuten euskararen batasuna. Beste batzuek, berriz, baserri giroari lotuta jarraitu zuten. Euskara ahozko jardunera mugatzen zuten, gehienbat, eta ez zuten ikusten idatzizko zereginetara egokitzeko beharra. Eta, jakina, ohiko bizimodurako ohiko euskalkiak ziren nahikoa.

Koldo Mitxelena, industria giroko Errenterian jaioa zenez, bertatik bertara ezagutu zuen aldakuntza, eta honela azaldu zuen euskal gizarte berriko gatazka (Mitxelena 1951: 20):

*Larre-izkuntza dena kale-izkuntza biur dedin, ain maite dugun "garo-usaia" –norbaitek "gorotz-usaia" esango luke– zertxobait galtzea naitaezkoa izango du. Kalearrak ere euskaldun gerta, batzuek beintzat, ta zori gaitoz edo zori onez, kaleatarrak gero ta geiago gellentzen ari. Eta kaleatarron buru-bioitzak ez izaki beti lengo euskaldunena bezain garbi. Barrenean bi gizonen burruka larza somatzen dugu (...), biotz euskalduna ta buru erdaldunaren arteko burruka amaigabea (...). Eta euskera biziko baldin bada (...), gure erritako biziera naasia euskeraz jarri bear nai-ta-ez.*

Elkintza zehatzak ere egin ziren euskara gizarte berri horretara egokitu nahian: 1950ean Guatemalan sortutako *Euzko-Gogo*a aldizkaria da horren adibidea. Bederatzi urtean zehar, 1950etik 1959ra bitartean, era guztiertako kultura gaiak euskara hutsez erabili ziren aldizkari hartan. Halaxe aitortu zuen Andima Ibiñagabeitiak (1952: 237):

Kultur-bideak barna oldartuz, aldizkari bakar bat ibili zaigu azken bi urte aurretan, arlorik zabalena euskeraz arrotuz. Aldizkari ortan inñun baño obeikiago euskeraren almena bu-lartu zaigu, euskal idazle azkarrenen arnas ta antzeak eraginda. Zenbait urte lenago amestu ere ezin gertzaken gaiak erabili ditute, taiuz, egoki, sakon ta argi. Bi urtetan, zazpireun orrialdetan, berreun idazlan eman dizkigu, jakintza, elerti, musika, oleriti eta abar azaldurik. Itz batean esateko, euskerarentzat, idazle antzetsuaren eskuartean kultur-tresna gertatzen danean, ezinkizunik ez dagola argi erakutsi digu. Orra *Euzko-Gogoren* irakaspén mardula, euskal idazle guztiok jarraibidetzat artu genukena.

Jakina, egitura zaharrari loturik zirautenei utopia eta alfer-lana iruditu zitzaion hura dena. Antonio Maria Labaien teatrogile tolosarra zen horietakoa (1949: 26):

Edozeñek daki eritasun bat sendatzeko lenengo gaitza ezagutu bear dala. Aurren-aurrena esan zaguin euskeraren gaitza zarra dala, ta sendatzeko zalla. Eri bati ezin zaio geiegi eskatu. Ezin jarri dezakegu español, prantzés, ingles eta beste erdera indartsuen mallan. Etxe lanetarako gai da, ordea, ta laguntza eta itzal aundia eman dezake oraindik urretan eta urretan Euskal Erriari.

Aiton batek illobak bezala, gure semcak euskaltasunean azi lezazke; ta gure sinismen, oitura, jolas, dantza ta euskal go-goaren zaindari bikaina izan ditreke. Onck euskeraz fisika, kimika ta matematikak irakastea baño geiago balio du. Gai



oriek eta beste goi jakituria erderari utzita ere, euskerari gelditzen zaio bazter polita: etxe-barrengo, erri artekoa, erre-ljiioaren magal gozoa.

Ikusten denez, Labaienon baitan euskara eta erdara ez zuden maila berean: erdara zegoen gainean, eta euskara erabat haren mendean. Adierazgarria da euskarari ikusten zion etorkizun txikia eta itxia: etxe barruko jarduna, herri arteko hartu-emana eta eliza. Antzera mintzatu zen urte batzuk geroago, “Aspaldiko” ezizenaren estalpean (1954: 155):

“Landuzale” berri batzuek baditugu aurrerantzean euskera arago eraman nai dutenak: Philosophia Naturalis, Bacon, Newton eta Einstein-en eremuetara. Ez dago gaizki ametsa. Nik uste, ordea, ez ote dan oraingoz urrutitxo joatea. Teoloji goitar, kimika ta antzekoak ikasteko beti jo bearko dugu erderara. Gure indar eta almenak neurtu gabe geitegi eka-tzea kalegari litzaiguke agian. Apalxo iraungo bagenu ere pozik. Gure literatura “quadrivium” otan sartuko nuke: 1) Kristau-ikasbide ta erlisoa, 2) Erri-jakintza (ipui, kanta, komerri, bertso ta eleberr), 3) Gauzen ikaskizunak, 4) Szienciari matematikaren apur eta oñarriak, astapenak alegia.

Nikolas Ormaetxea “Orixe”, euskaltzale ezaguna hau ere, bat zetorren ikuspegi horretan. Hauexek haren hitzak (Ormaetxea 1959: 92-93):

Badu euskerak bere edertasuna non agertu: ele-eder edo literaturan, izate-gaiean edo metapisikan, eder-legectean edo estetikian, izkeran edo gramatikan. Utzi detzagun kimika ta olakoak, oriek ez baitira giza-izkuntza jatorra. Oriek ez dute batiere edertu iñongo izkuntzarik. Itusitu bai, gogotik. Zer esanen ote luteke Frai Luis biak eta Cervantesek, egungo gaztelan itsusia eta aldrebea irakurriko balute? Ortara ezkeru, jakingai oriek erabili detzagun beste edozein izkuntzetan.

Jakina, euskarari hain esparru apalak utzita, ez zegoen euskara batu, landu eta arautu beharrik. Gai jasotetan erdarak erabiltza, ez zegoen arazorik.

## 2. Federico Krutwig eta “lapurtera klasikoa”

Krutwigek aldarrikatu zuen gardenen eta, batez ere, ozonen euskara kulturaren esparrura zabaldu beharra. Jatorritz getxotarra, eta euskara mutildu ondoren ikasia, eragin handia izan zuen garai hartako gizartean. Esan izan da (Txillardegui 1994: 132) berak salatu zuela Euskaltzaindiko batzarak gaztelaniaz izatea, eta salaketa horren ondoren hasi zirela egiten euskaraz.

Euskaltzainditiik kanpora, *Urkiotiar Jul Elkhargoa* sortu zuen Bilbon, 1951n. Kultura gaiez euskara hutsez jardutea zen elkarrearen helburua. Lino Akesolo, Mikel Arruza, Imanol Berriatua, Eusebio Erkiaga, Bernardo Garro “Orxolua”, Juan Gorostiaga eta Luis Villasante ziren bertako kideak; Krutwig bezala, denak bizkaitarrak.

Euskara kultura tresna izango bazen, aukeratuako hizke-rra ereduak ere halakoa behar zuen, eta Krutwigi lapurtar zaharra, batez ere Leizarragarena, iruditu zizaiton horretarako helduleku egokia. Dirudienez, 1950ean, Euskaltzaindian irakurriako txosten batean aurkeztu zuen lehenengoz bere irizkia: *Euskararen idatzi hizkuntzari buruz* saio argitaragabea. Besteak beste, hauxe irakur dezakegu bertan (3. or.):

Idatzi hizkuntza dialektuetan leinu noble bat da, ta leinuen nobleartzuna demporaz egitten da, zaharragoak eta nobleagoak. Gure aristokratiak eta burjesiak oraino euskararen

dialektuak direan baño nobleagoa den hizkuntza bat naia-  
go izanen dute.

Handik lasterera argitaratutako beste artikulua batean,  
berriz, honako hau idatzi zuen (Krutwig 1951: 11):

Hizkuntzek gizartean eduki behar duten prestijea kultur-  
dunek erabiltzen duten hizkuntzaren bidez egiten dela Phi-  
lologiak derraku; hartarantz kulturdunentzako hizkuntza  
egin ezpadezagutu, ezin dezakegu gure hizkuntzaren presti-  
jia handiago. (...) Euskararen baratzuna eratzekotz, ge-  
hien irastean den hizkalkia onhartu behar dugun, ez gehien  
mintzatzen datekena, literatura hizkuntza batzuk, lehenz  
irakurtzekotz baitira. Zio honengatik gure literaturaren  
tradizino-hizkuntza hartu behar da, ta haur Leizarraga-  
nik, Aretxularganik, Etxeberriganik, Haranederaganik gugara-  
no ethorri den literatur-laburdara da.

Behin eta berriro esan da, gizarteak hizkera eredu jakin  
bat onartuko badu, *bizia* eta hiztunendako *gerruko*a izan  
behar duela. Guztiz bestelakoa zen Krutwigen bidia, hiztu-  
nengandik zeharo urrunekoa. Egia esan, Krutwigek erabi-  
tzen zuen hizkera ez da sekula egin Euskal Herrian; ez  
orain eta ez aspaldian. Hori dela eta, hasierako lilura galdu  
ostean, inguruko lagunik gehienek bakarrik utzi zuten bu-  
ruzagia. Hasiera batean eredu hura erabilitako Gabriel Arce-  
ti eta Jon Mirande idazleek ere, beste bidde batzuk urratu zi-  
tuzten handik lastertera<sup>17</sup>.

<sup>17</sup> Egia zio, Krutwigen bidia ez dagocela oraindik erabat ixita esan behar  
da. Gaur egun ere baditu jarraitzaileak, denak bizkaitarrak. 1986an, *Jakinza*  
*Baita* izeneko elkarrean sortu zuen Bilbon, eta berran bidu zuten Alfonso Tri-  
goten euskaltzaina, Manu Erzila, Juan Luis Goicoechea, Josu Lavin... hauek  
ere denak bizkaitarrak (in *Argia* 1986.06.29, 1.110. zb., 41).

Jon Miranderi dagokionez, 1957ko ekainaren 28an An-di-  
ma Ibiñagabeitari egindako gutunean agertzen da aldakin-  
za. Hauek haren hitzak (in Urkizu 1995: 128):

Eskutitz au *gipuzkera osotuan* egin dur, ez noski L[apurtera]  
K[lasikoa] edo Krutwigera osotua ukatzen eta arregatzen  
dudalako, bañan auzi alperra dalako euskalkien ingururako  
auzi ori<sup>18</sup>.

Dena dela, begiak 1950eko garai hartan jarrita, alde rdi  
onak ere ikusten zaizkio Krutwigen ahaleginari:

a. Hizkera estandarrek Hegoaldeko eta Iparraldeko eus-  
kaldunak batzeko balio behar zuela zioen. Euskara eta Eus-  
kal Herria bere osotasunean izan zituen gogoan.

b. Hizkera estandarra ordu arte frantsesak eta gaztelani-  
ak izandako lekua bereganatzeko zela zioen; ez euskalkiak  
baztertzeko. Berrira eta egokia zen ikuspegia: euskalkiak eta  
estandarra bata bestearen etsaitzat gabe, bata bestearen Osa-  
garriztat hartu zituen.

c. Garraiko giro garbizale itogarritik irreten lagundu zuen,  
eta nazioarteko hitzei atekak erabat zabalatzeko deia egin zuen.  
Horretan ere, baina, izan zuen bere alderdi makurra. Tradizio  
greko-latindarreko hitzok jatorrizko ortografiari idaztearen  
aldekoa zen: *syllaba*, *synthesis*, *telephono*, adibidez. Leizarraga  
alde batera utzita, Euskal Herrian ez zaio sekula bidde horri  
jarraitu; ez Hegoaldean, ez Iparraldean.

d. Gure literatura tradizioa, batez ere Lapurdikoa, arreata  
handiagoz begiratu eta aztertu beharra aldarrikatu zuen. Tra-

<sup>18</sup> Patri Urkizuk (1995) bildutako gutunetan ikus dezakegu Jon Miranderen  
biakacaren berr. Arestiren ganeke argibideak, bertiz, Angel Zelaiterak (2000)  
egindako biografiari.



dizio hori aintzakotzat hartzeak azken orduko berrikuntzak eta lekuan lekuko txokokeriak baztertzea ekarri zuen eta, iragana kontuan hartzeak, euskararen batasuna eskurago jarri zuen.

e. Euskarari zerion baserri usaina kentzeko ere balio izan zuen Kruwiggen jardunak. Gizarte hiritarra, kulturaren esparrua eta euskararen nazioartekotasuna etengabe eta ozen aldarrikatu zituen.

1962an argitaraturako “Euskararen ethorkizuna” artikuluan garatu zuen zeharzen eta sakonen bere ikuspegia. Honan hemen pasarte bat (Kruwig 1962: 27):

Euskaldun guztiok gure herriaren batasunagatik guztiontzako forma literari bat ukhan behar dugu, eta ez bata printsez-euskaldunentzat eta bertzea espāñol-euskaldunentzat. Halabaina, lapurdara literatur euskara bezala onhartzea ezta izanen nehoiz ere dialektuen ezabartzea (...) The-mat batzu orain arte bezala dialektuetan erabiltzen ditugu, baina laburdara klasiko orain arte espāñol eta frantsez erdaraz erabili ditugun themarentzat izanen da, haur da, dialektuen anaie handiagoa izaiteko. Batez ere prestijia handiagotzekotz kultur-symbol euskalduna izan dadintzat.

Guztiz arrazoizkoak ziren bere garaikideci egindako zentzabait salaketa; esate baterako, berak “populistik” deitzen zituenci egindakoak (28-29. or.):

Haukiek soilik euskara jente kaskarraren eta herri xhearen problematen traktarzekotz erabili nahi lukere. Bertze gai guzti-ci buruz erdaraz mintzo dira (...). Heientzat dialektu eta dialektutxoak aski dirade eta, batez ere, euskara lokalismuz bethea maite dute. (...) Prestijjeko gauzak behi erdaraz erabiltzen ditute. (...) Hunelako tendentzia eta egokera adibidez, bertze exempluetan, Ipharraldeko Euskal Herri-

ko aphezen ekhinta litzareke. Aphez haukiek herriari behi euskaraz predikarzen deraukote, bainan heien artean erdaraz baizen ez tira mintzatzen. Bainan herriak exemplu tzarra ikustren du... eta aphezen exemplu tzarra dela kausa, erdaraz ere mintzarzeko iaidura hartzen dute. (...) Alda hunen euskalzalcentzat euskararen izkiriari formaren batasuna ezta problematik, zeren heien kultur bidea erdara baita.

### 3. Nafar-lapurtarra

Dagoneko esan denez, euskara kostarraren nagusitasuna galdu ondoren, Lapurdi eta Nafarroa Behereko idazleak euren eskualdeko hizkerak erabiltzen hasi ziren. XIX. mendean zehar, joera jakin batzuk zabaldu eta nagusitu ziren idazlecn izkribuetan, eta joera horiek babestu eta indartu zituzten *Eskualduna* eta geroagoko *Gure Herria* aldizkari-ck. 1944an, Pierre Lafittek zehaztu eta arautu egin zituen joera horiek bere gramatikan, eta oihartzuun zabala izan zuten urte horretan bertan sortutako *Herria* aldizkarian.

Lafittek *nafar-lapurtarra* deitu zion eredu bertari, eta hiru dira berehalakoan lortu zuen arrakastaren arrazoiak: Lapurdi eta Nafarroa Behereko euskara *bizia* zuen oinarri, hiztunen eguneroko jardunetik *gertuko* zen eta, hori dela eta, herri xhearendako ere ulertzeko eta ikasreko *erraza* gertatu zen. Egoki bere zituena, beraz, hizkera erduaren baldintzak, baina bazuen akats bat larria: ez zuen aintzakotzat hartzen euskararen eta Euskal Herriaren osotasuna. Txokokeriak eta azken orduko berrikuntzat oso eskuzabal onartu zituen eta, azken batean, euskararen batasunari begi-

ra, oztopo bat gchiago izan zen. Horixe da, hain zuzen, Luis Villasantek (1952: 266) ikusi zion alderdi txarra:

Euskaldun guztientzat idazteko ardurara hori aspaldiko idazle laphurtar denetan nabari da, eta izan ere hekiein euskara hemengo euskaldunentzat egungo laphurtarrena baino errezago ta adikorrago bihurtzen zaiku. (...) Egungo idazle laphurtarrek, aspaldikoen oro-ardura eta zabaltasun hori ahantzirik, nor bere zoko ta eskualdeko berezitasunci lothuak hari direla dirudi, baino nahi dugun xederat heltzeko bide okherra litzateke hau.

Gaitz bera aipatu zuen Mitxelena (in *Euskera* 4 (1959), 171):

*Herria*-n gauza bat ikusten dut, alegia gure Kruzwigek esango zukean bezala, populismo geiegi. Esan nai dut, Lapurdiko euskera beti izan dala an nagusi literaturaren alde-tik, eta beti idatzi dute (...) *naiz* eta olakoak, eta orain denak *niz*, eta *gazkio* baina ez *gizazkio*, errezago iruditzen zaitelako. Beraz, ortan erri-izkeran piska bat bear dan baiño geiago berrikeria ematen diotela *Herria*-n.

#### 4. “Gipuzkera osoturen” gainbehera

XX. mendearen lehen erdian eredurik egokiena zirudienak ez zuen jarraitzaile askorik izan mendearen bigarren al-dian. Izan ziren hartaz gogoratu zirenak, batez ere 1968an, *euskara batua* sortu zenean, baina ez zuten gizartean zabal-tzea eta errotzea lortu. Bost dira gipuzkera osoturen gain-behera ekarri zuten arrazoiak, nire irtizian:

a. Azkuek ez zuen argiro zehaztu eta mugatu bere er-dua, eta jarraitzaileek edozer gauza sartu zuten gipuzkera “osoturen” barruan, betiere euskalki hori “osatzeke” airtza-kiapen. Hori, jakina, hizkera eredu baten izaeraren aurka zihonan bete-betean: zehatz arautua egotea eta egitura bakar eta beti berberkoa izatea direlako hizkera estandarren ezaugarriak.

b. Literatura tradizioa oso bigarren mailan utzi zen, eta leku zabalegia egin zitzaion euskara mintzatuari. Behin eta berriro esan da eredutzat hartzen den hizkerak bizia eta hiz-tunengandik gertuko izan behar duela, baina ondo bereizi behar dira, hala ere, ahozko hizkera eta idatzia, lagunarte-koa eta jaso.

c. Giputz zenbaiten jokabidea ez zen izan batere jatorria. Ez zuten gipuzkera osatzen inolako ahaleginik egin, eta Az-kueren gipuzkera *osotua* gipuzkera *huts* gertatu zen haicn jarduncan. Gainera, Gipuzkoa barruan ere txokokeria garbi-ak zirenak erabili zituzten sarritan. Bizkaitarrak mintzea eta euren ahalegina bertan behera uztea ekarri zuen gipuzkoa-rren arduragabekeria.

d. Kruzwigen lapurtera klasikoa agertzeak ere izan zuen zerikusia. Bizkaietan sortu eta indartu zen, eta bide berri ho-rri begira jarri zen Bilbo aldeko idazle eta euskaltzale jende gaztea.

e. Azkuek ez zuen inolako talde eta elkarreren babesik izan. Ezta Euskaltzaindiarena ere, nahiz eta bera izan Euskal-tzaindiko lehendakaria. Azken batean, Azkue bera zen gipuz-keria osotua, Mitxelena (1978: 474) esan zuen bezala.

Zehatzago ikusiko ditugu aipatu diren gertakari horietar-ko zenbait.



#### 4.1. *Hizkera mintzatutaren nagusitasuna*

Mundu zabaleko edozein hizkuntza erraz eta laster aldatzen da hitzunen ahozko jardunean. Horrelako egoeretan hitzunik libre ikusi ohi du bere burua, eta hitzak laburtzea, hitzak batzea eta era guztietako aldakuntza fonetikoak gautatzea izan ohi dira askatasun giroaren emaitza: *egin* → *ein* → *in* eta *zuen* → *zun* gisako laburdurak, *egin zuen* → *intzun gisako* loturak, eta *dirua* → *diruba* / *dirue* / *dirú* / *diro* gisako aldakuntzak dira horren adibidea. Edozein euskaldunendako gardena den *dirua egin zuen* esaldia *diruba intzun / dirue intzon* / *dirú eiban* eta beste hainbat modutan ilundu ohi da eguneroko jardun arruntan.

Ahozko jardunean, bestalde, ibar edo eskualde batetik bere ondokora aldatu ohi da hizkuntza, eta gaur egun bertan ikus dezakegunez, Gipuzkoako Goierri eta batera dena, bestela da bere inguruko Urolaldan, Tolosaldean, Deba ibarrean edo Sakanan. Hori dela eta, hizkera idatzian iragana izan ohi da betiere gogoan, eta hitzak osorik, bata bestearengandik bereizirik eta jatorrizko itxura gordeirik idatzi ohi dira. Horrela ziurtatzen da hizkuntzaren batasuna, eta alderdi guztietako hitzunek batuk besteari erraz eta eroso ulertzeko gaitasuna.

Azkuek, ostera, ez zuen arreta handiegirik jarri ezaugarri horretan, eta hitzunen hizkeratik gheiegi ez urruntzeagatik, leku zabalegia egin zien ahozko jardun libreko bereizgarriei. Hori dela eta, batasuna ekarri beharrean, lehendik zegoen batasuna indartu zuen. Lino Akesolo bizkaitarrak, esate baterako, argiro ikusi zuen akats hori Kardaberaz Bazkunaren jardunean. Euskaltzaindiaren euskara batuarren ordez, Azkueren gipuzkera osotua aldarrikatzen zuten elkarte horretakoek, eta hona hemen Akesoloren (1975: 40) salaketa:

Kardaberazarren artean bakoitzak bere bideari jarraitzen dio. Atera dituzten liburuak ikustea aski da. Batzuetatik beste batzuetara alde nabarmena ez al dago? Zergatik orri? Bearbada, ez zaito iñori bere eskubidea moztu nai izan. Bearbada, beste asmo batek eragiñik jokatu da orrela (...). Ala ere, nik uste dut ez dutela lan batzuek beren kutsua galduko, orrazketa puskarren bat egiñez. Esaterako, zergatik idatzi *zurigo*, *geigo*, eta ez *zurriago*, *geiago*? Batasunerako bidean sartu nai badugu, nik uste dut olako laburpenak utzi egin bearko dirala.

#### 4.2. *Gipuztzen baiten jokatibidea*

Ahalegin handia egin zuten Azkuek eta gainerako bizkaitarrek euren euskalkia utzi eta euskara gipuzta hartzeko orduan. Euskara gipuztean ikusten zituzten zenbait hutsune eta akats gainerako euskalkien osagaiekin betetzea eta zuzentzea zen horren truke eskatzen zuten ordaina, eta ordain xume hori ere ez jasotzeak ekarri zuen haicn adoregabetzera. Andima Ibiñagabecita zen gipuzkera osotua indartzen ziharduren bizkaitarretako bat, eta honela azaldu zuen bere etsipena eta samina (Ibiñagabecita 1952: 239):

Izkelgiz gipuzkoar jaiotzean oarxo bat egin nai nieke bukatu baño len. Gipuzkoarrak erakutsi digute ontan ere targarrik (sic) zoroena. Akademiak aspaldi erabaki zun aditz laguntzallean *dut*, *duzu* ta urrengoak erabiltzeko, *det* eta *dot*-en ordez. Orra, gipuzkoarrak, oraindik agindu aditzetara malgutzeke, beti ere beren zorigaitzoko *det* erabiltki agertzen zaizkigu (...). Jaunak, zuek ere ikasi ezazute zue-netrik zerbat uzten batasunaren onerako. Besteok askoz ere erauzketa aundi ta mingarriagoak egin bear izan ditugu zuen izkelgi ederrari indar emateko.

Arrazoizkoa zen Ibiñagabeitiaren hasierrea, eta gisa berean agertu zen Eusebio Erkiaga –hau ere bizkaitarra– 1953an, Santi Onaindiari egindako gutunean (in Onaindia 1974: 15-16):

Hontaz, badakizu gure arteko betiko eztabaidak. Gipuzzak beti giputz bakarrik. Osotasuna, edota batasuna euren euskalkiz nahi dabe, eurak ezter aldarzeke, eta nekharzeke. Besteok gara nehatu eta ikasten saiatu behar dugunok.

Garai berekoa da Balentin Aurre-Apraizen (1954: 186) lekukotasuna, hau ere bizkaitarra:

Bizkaitarrok naste-zale geran bezin burukoi dira giputz asko (...). Eurena edertutzeke ere ezin dute eka egorik albo-etera. Eurena uts-utsik da ona, antza. Onak dagoz orreik guk bezela geurea utzi eta auzokoa artzeke.

Bizkaitarrak ez ezik, Mitxelena errenteriarra ere ondo jabetu zen bere inguruko setakeriaz (in *Euskera* 5 (1960), 90):

Gipuzkoan zenbaitetik, gipuzkera osotua izango zala etortkizuneko euskera esan zuten ezkerero, uste dut ori aditu dugula era onetan: euskaldun guztioek jo bearke dute guk gipuzkoarrok nai dugun bideetik. Jakiña, Azkuiek “gipuzkera osotua” esaten zuenean etzuen ori esan nai.

Idazle gipuzkoarrek zerabiltzaten txokokeriak ere salatu ziuene Mitxelena; hianoko *gatxabiltzek*, *matxetorrek* tanke-rako aditzkiak, esate baterako (in *Euskera* 4 (1959), 171):

Ni giputza naizen aldetik, naiz ez izkeraz giputza izan, gauza bat esan bear dut: izugarriko pekatu bat egiten ari gerala gipuzkoarrek azken bolada ontan ikako formekin. *Gatxabiltzek* eta orrelakoak Gipuzkoako txoko batean bakarrik erabiltzen direla. Euskaldun guztiak *giabiltzak*, *ge-*

*biltzak* edo olako formak erabiltzen dituztela. Beraz, *gatxabiltzek*, *matxetorrek* eta oiek lokalismo estu-estuak dira Gipuzkoan. Eta nik ez tut uste gipuzkoarrok, nik neronek ere ez titut erabiltzen eta gure inguruan ez tira erabiltzen, eskubiderik dugunik forma oiek euskaldun guztiak zabaldunai izateko.

Gipuzkoarren jokabideak euskararen eta Euskal Herriaren osotasuna aintzakotzat ez hartzea salarzen du, eta ez dezagun uste izan iraganeko kontua dela, gaur egun gaitinduta dagoena. Bai zera! *Euskararen sendabellarrek* saioan aipatu nuen gipuzkoar batek oraindik orain esandakoa: *nik beti hitz eiten det euskera batuan*, bere eguneroko *eiten det eta euskera horiek* Euskal Herri osokoak eta euskaldun guzti-tenak balira bezala. Azken batean, Euskal Herria administrazioz zatituta dagoen bitartean, beti izango dugu gure barrutitik harantzagokoa ez ikusteko arriskua; gipuztek bezalaxe, giputz ez garenok ere.

#### 4.3. “Gipuzkera osotuaren” gainbeheraren ondorioak *Bizkaiain*

Gipuzkera osotuaren gainbeherak etsiak jota utzi zituen bizkaitar asko, eta horren ondorioak berehala azaldu ziren. Kontuan eduki dezagun eredu horren sortzailea ez ezik, jarraitzaile asko ere bizkaitarrak zirela. Euren ahalegina alferrekoa zela ikusita, bizkaitar horietako barzok berriro ere Bizkaira begira jarri eta Bizkaiain itxi ziren. Ahalki eta euskara bizkaitar garbiena eta jatorrena erabiltzeari eta indartzeari ekin zioten bero-bero, baina euren bizkaitar garbitzat eta jatorizat zutena, gainerako euskalkietatik gehien bereizten zena baizik ez zen, azken batean. Hori dela eta, bizkaitarrak



gainerako euskaldunengandik aldentzea eta euskara bizkaitarra gainerako euskalkietatik urruntzea gertatu zen berritio. Arestian aipatu dugun Aurre-Aprreiz da jokabide horren lekuko. Hauek haren hitzak (Aurre-Aprreiz 1964: 49):

Aldi atan, jo eta ke ekin bere ekin neutsan, ba, ari, bide ari –*gipuzkera osoitari*, alegia–, beste guztiak bere araxe joko ebelaotan. (...) Dana dala (...), kiputzak euren zorioneko *deti*-deutsela jarraicla ikusten nituan, tamalez, *nebeari anaia*, *atzamarreni beartzak*, *bekokiari kopeta* ta abar gogaikarriro idatziaz, eta “guk geuk geurea osorik ixita, besteak ezin erentik apurtxurik bere bazertu, batasunaren onarren, ego-kiagoak arzteko?”, esan neban neure kolkorako. Orexegeatik eta beste zio batzukaitik mingostuta, itxi egin neban, ba, ki-puzkera osotua. Eta ganera (...), bizkaiterari eldu neutsan barrien-barri, gogokotasun itzelez, leen baño be sutsuago.

Azken esaldi bietan ageri da Aurre-Aprreizek ordutik aurrera hartu zuen bidea, beste bizkaitar batzuek ere ibili zutena.

Bizkaiaren bertan, gainera, batasunerako beste eredu bat agertu zen gipuzkera osotuak huts egin ondoren: *euskara osotua*. Zehatzago ikusiko dugu bide hori zertan den.

## 5. “Euskara osotua”

Izatez, aspaldikoa zen euskara osotuaren asmoa. Euskaltzaindiak 1921-1922 urteetan antolatatu zituen batzarretan, esate baterako, Ipolita Larrakoetzca eta Donosti Murruatar Domeka agertu ziren irtenbide horren alde. Euskara batua euskalki guztiak nahastuta egitea zen euren nahia. Horretarako arrazoi nagusiak, berriz, ondorengo hirurak: euskalki guztien aberastasunak kontuan hartzea, hiztun guztiak ere-

du horrekin bat etortzea eta onartzea, eta euskaldunen eta euskalkien arteko lehiak eta tirabirak saihestea. Egitasmo horren aldekoa izan zen, besteak beste, Jokin Zaitegi arrasartarra, *Euzko-Gogoa* aldizkariaren arduraduna eta, hain zuzen, berak jarri zion izena (in Urbieta 1956: 91):

Darabilkidan euskerari *euskera osotua* derizot. Ezta gipuzkera osotua ere. Bekoki zabalagokin jokatzan naiz batasun arlo ontan. (...) Euskera bat da ta lasai erabilifi bear ditugu nunaiko esakera ta itz.

Dena dela, Jose Basterretxea “Oskillasok” 1962an argitaratutako *Kurrioiak* liburua izan zuen oihartzunik handiena. Kontakizunaren hitzaurrean agertu zituen bere arrazoiak, eta kontakizuna bera teoria horren ahalbide praktikoa izateko idatzi zuen.

Helburuak helburu, gipuzkera osotuaren gaitzak gehietzea eta handitzea besterik ez zuen lortu. Euskalki bateko eta beste ko ezangariak, inolako neurri eta orekarik gabeko nahasteak, anabasa besterik ez zekarren, eta *artifizialtasuna* izan zen, hain zuzen, Koldo Mitxelena (1962) eta Luis Villasantek (1963) ikusi zioten akatsa<sup>19</sup>. Hona hemen Mitxelena (1962: 305) esandakoa:

Bere euskalkiaz beste denak izutu egiten du, bearbada, euskal irakurlea, eta zenbait liburu edo irakurtzetik atzerazi. Asierako beldurra menderatu duenean, orde, gogoz eta atsegin ez inguratzan du bere izkuntzan arkitu duen lurralde berrira. Berra ez tuten euskalkia, beraz, astun eta nekagarri bazaio ere, etzaio gogaikarri, pozkarri baizik, eta are lilluragari. Zer gertatzen zaio, berriz, ez arrai ez aragi, ez bera ez besterena, ez tuten izkerarekin?

<sup>19</sup> Basterretxearen erantzunen berri izateko, ikus Basterretxea 1962b eta 1963.

Zenbait naasteren beartean gera, noski, euskal literaturan, eta bide onetarik gabiltza –barera edo bestera– aspaldi onetan. Baina noiz arte jasango du irakurlearen aok oi duen ez-tiaren orde, nai badu eta nai ezpadu irents-erazi nai diogun ozpiña? Ezpaitago ozpin miñagorik elkarrekin ezin ezkon ditezkean goxokiz naasia baño.

Zeharo bat nator Mitxelenaekin. Hiztun guztiok hartzen ditugu gainerako euskalkietako osagaiak, hitzak eta esapideak gehienbat, baina ondo zehaztutako eta ondo aukeratutako oinarrari eranstean dizkiogu osagai horiek; ez edozer edozeri, edonola eta edonoiz.

Denok, ostera, ez dugu zuzen asmatzen eginkizun horretan, edo ez dugu berdin ikusten eginkizuna bera, eta gauraz “minak” eta “goxoak” nahastean ditugu lapiko barruan. Oraindik orain egunkari batean aurkitutako adibidea erakutsi nuen *Euskararen sendaberrak* saioan:

*Alta, jubilatuentzako egoitza berri bat eraikitzen ahal da igandean bildu sosagaz*

Zur eta lur utzi minduen esaldiak. Iparaldekoak dira *alta* hitza eta *bildu* sosa egitura, Hegoaldean, gehienbat, *aldiz* edo *ordea*, eta *bildurako sosa* edo *bildu zen sosa* esan ohi direnak. Ipar Euskal Herrian eta euskara nafarrean erabiltzen da, berriz, *eraikitzen ahal da* egitura, *eraiki daiteke* edo *eraiki ahal da* esamoldean baliokidea. Horretan guztian bada, beraz, batasuna. Baina, aldiz, Hegoaldekoa da –gaztelaniatik hartutakoa– *jubilatu* hitza eta, hori gutxi balitz, esaldiaren amaieran dago osagairik xelebreena: *sosagaz*. Bizkaiko bereizgarria da -gaz atzizkia, eta euskalki horretan guztiz arrotza den *sos* hitzari lotuta agertzen da, eta hauxe da neure bu-

ruari egiten diodan galdera: zertan aberasten da euskara, eta zertan dotoretzen, horrelako nahasketak eginda?

Baina denok, nonbait, ez gara iritzi berekoak, eta joiandien aspaldi honetan, euskara *batua* eraikitzeke ahaleginetan, asko zabaldu da nonahiko hitzak eta egiturak inolako zentzu eta orekarik gabe nahasteke ohitura. Oraindik antzina ez dela, hain zuzen, euskara osotuaren aldeko deia darra egin zuten euskaltzain batek, eta adierazgarria zen bere aldarrari jarriz zion goiburua: *Erran gura dut* (in *Euskaldunon Egunkaria* 2002.02.05).

Esan nahi dudana zuzen uler dadin, xehetasun batzuek egin nahi ditut euskara “osatzeaz”. Kontua ez da –berritot– bakoitzak bere hizkerako osagaiak beti eta ezinbestean erabiltzea, eta beste hizkeretako erabat atak ixtea. Bai zentral Gure aurrekoak ere –Larramendi eta beste– garbi eta garden mintzatu zirenen gertakari horretaz: euskalkiak aberasteke eta euskaldunen arteko hartu-eman errazteko, onuragarritzat jotzen zuten besteen hizkeren berri izatea eta, baretz ere, besteen hitzak ezagutzea. Gaur egun, gainera, eten-gabea da hitz berriak sortzea, eta nahitaezkoa da hitz berri horiek euskalki guztietara hedatzea.

Eztabadaida, beraz, ez datza beste alderdi batzuetako osagaiak erabiltzean edo ez erabiltzean; beste alderdietako balabideak noiz eta nola erabiltzean baizik.

Esan nahi dudana erakuste alde, neure hizkera hartuko dut adibide. Hizkera horretan, esate baterako, arrotzak dira *airortu*, *bilakatu*, *chiza*, *errun*, *galdeu*, *lehia*, *lortu*, *nekaru*, *opor*, *saio*, *uzta*... tankerako hitzak, baina nik neuk, behintzat, zeharo neureganatu ditut, eta euskara batuan dihardandean ez ezik, euskalkian mintzatzerakoan ere lasai asko



erabiltzen ditut. Beste horrenbeste egiten dut joan den aspaldian ugaritu diren hitz elkartu eta eratorrekin. Nire hizkeran arrotzak izan diren *azterketa*, *balibide*, *egitismo*, *egunkari*, *helburu*, *irizpide*, *nortasun*, *ugaztun*... gisakoak guztiz neureganatu ditut, eta nire hizregiko osagai dira, *arrain*, *etxe*, *haragi*, *lur*, *ogi* edo *ur* diren bezalaxe.

Argia da horren arrazoa: *bakaziño*, *kantsau*, *konbertidu*, *konsegidu*, *kriterio*, *preguntau*... oso neureak diren arren, beste alderdi batzuetako euskaldunekin jarduteko, edo neure hizkera janzteko eta jasotzeko, ez dira bitarteko egokiak.

Esan dezadan, honen harira, gauza bat dela *lagunarteko jarduna*, eta beste bat *jardun jaso*. Gauza bat da *herri barruko jarduna*, eta beste bat *Euskal Herri osoko*. Lagunarteko eta herri barruko jardunean lasai asko erabili ohi ditugu *kantsau* eta *preguntau* tankerako hitzak, baina *jardun jaso*an eta, batez ere, herriko edo eskualdeko mugak gainditu eta beste alderdi batzuetako euskaldunekin mintzo garenean, *nekaru* eta *galderu* saillekoak aukeratu ohi ditugu. Eta horixe da, hain zuzen, euskara “osatzeko” moduetako bat.

Bestalde, berriz, gainerako euskalkietako osagaiak ez dira bakarrik azken orduko erdarakadak baztertzeko lagungarri. Hitz jatortzat dauzkat neure hizkerako *antxixika*, *begitandu*, *behargin*, *larregi* eta *zatar*, baina euren eremua hain zabala ez denez, nahiago ditut *lasterka*, *iruditu*, *langile*, *gihigi* eta *issusi* beste alderdi batzuetako euskaldunekin jarduteko. Era hori ere bada euskara “osatzeko” modua. Hauda, zenbat eta eremu zabalagoan, eta zenbat eta euskaldun gehiago erabiltzen dituzten ezaugarriak, egokiagoak dira eremu txikietan eta hirtun gutxiaren jardunetan erabiltzen direnak baino.

Badira, hirugarrenik, hitz egiterakoan sari erabiltzen ditugun hitzak, eta gauzak beti modu berberean ez esaterren, egoki etorri ohi da —beste alderdi batzuetako lagunekin ari garenean, gehienbat— besten osagaiak tartekatzea. Nire hizkeran, konparazio baterako, *guztiz* / *zeharq*, *oo*, *esate baterako*, *ostera* eta *orduan* / *ba* erabiltzen dira, baina noizean behin, auzokoen *erabat*, *biziki* / *arunt*, *adibidez*, *aldiz* / *ordea* eta *beraz* ere egoki etorri ohi zaizkigu. Hori ere bada euskara “osatzeko” modua.

Hizkuntza, azkenik, ez da bakarrik hitz egiteko eta besteekin komunikatzeko, *solasteko* eta *jolasteko* ere bada, Nafarroa aldean hain egoki esaten den bezala. Hori dela eta, nire eguneroko jardunean arrotzak diren *aburu* eta *bego* hitzak, adibidez, ondo gustura baliatzen ditut *zenbat buru*, *hainbat aburu* eta “*gero*” *dionak*, “*bego*” *dio* tankerako esapideetan. Era berean, nire hizkeran arrotzak diren *galta* eta *lan* hitzak batere lotsarik gabe erabiltzen ditut *galtzak bete lan* esapidean. Jakina, hori ere bada euskara “osatzeko” modua.

Hizkuntzarekin jolastea dela eta, esan dezadan, bide batez, hitzaren esanahia indartzearren, sinonimo bi jarrri ohi direla inoiz bata bestearen ondoren. Beste hizkuntza batzuetan ere ezaguna da jokabidea. Gaztelaniaz, esate baterako, *lisa y llanamente* edo *total y absolutamente* gisakoak esaten dira. Euskaraz ere badira, edo egin daitezke horrelakoak: *zinez eta benetan*, *ase eta bete*, *estu eta larri*, *huts eta soil*, *xelke eta xume*, *idor eta lehor*, *txukun eta garbi*, *adi eta erne*, *arin eta azkar*, *emeki eta poliki*, *higuina eta nazka*, *izua eta ikarra*, *zikin eta lohi*...

Itxuraz antzekoak diren hitzekin ere osa daitezke horrelako bikoteak: *argi eta garbi*, *garbi eta garden*, *lur eta zur*,

setati eta temati, gogor eta gotor, sor eta gor, kinuka eta sinuka, baretu eta baketu, hitz eta bits, berbetan eta berriketan, jokatu eta jolastu, ero eta berq, hotz eta motz, eygel eta txepel, huts eta putz, iltzez eta giltzez, atez eta katez, zuri eta zurbil, gori eta gori, aratz eta maratz, gatz eta berakatz, zakartu eta zakurtu, zirrika eta zirrika... Baita hitz berberaren aldarekin ere: lasai eta nasai, zakar eta zatar, jaun eta jabe, cpel eta txepel, zapaldu eta zampatu... Ikusten denez, euskalki batzuetako eta bestetako osagaiak uzartzen dira esapide horietan eta, jakina, hori ere bada euskara "osatzeko" bidea.

Baina, aldez, *erran gura dut* tankerakoak esateari ez diot ikusten inolako onurarik. Euskaldun gehienek onartuko dituzte, ziurrenera, *erran nahi dut* nahiz *esan gura dut*, baina ez zait iruditzen *erran* eta *gura* nahastreak euskara janzten, edertzen eta aberasten duenik eta, behar bada, horrelako pedanteckeriek nekatu eta nazkatu egin dezakete bat baino gehiago, eta euskaratik urruntzeko eta erdarara hurbiltzeko aitakia gertatu.

Laburbilduz, ondo dago euskalki bateko hutsunea beste bateko osagaiarekin betetzera. Zuzena da eremu urriko ezaugarriak neurritz erabiltzea eta eremu zabalekoci lehentasuna ematea. Zentzuzkoa da behin eta berriro hitz edo egitura berbera errepikatu beharrean, noizcan behin aldatu eta beste euskalkiren bateko balia bideak erabiltzea. Egokia da errima arrazoien garik edo hitz jokoak egitegaratik auzoetara begira jartzea. Eta bidezkoa da, azken batean, euskalki guzti-erako atek zabalik izatea eta eurerako ondasun guztiak guztion eskura izatea. Baina *senz* eta *zentzuz* jokatu eta jolastu behar da ondasun eta balia bide horiekin, betiere hizkuntza-*ren* egitura orka egokian gordeaz.

Gutxi gorabehera, eta gorago ikusi denez, horixe zen Larramendik (1745: XLVI) XVIII. mendean zioena. Eta horixe da, era berean, euskaltzain jakin batek esandakoa gorabehera, Euskaltzaindiak berak dioena. Erorki zuneako *-gd* eta *-en* arizikiak zirela eta, esate baterako, biak eman zituen ontzat, baina mendebaleko eta erdialdeko aditzekin (*irren*) *-en* ez erabiltzeko, eta ekialdekoekin ere (*jin*) *-gd* ez erabiltzeko esan zuen. Hau da, desegokitzat jo zituen *irren* eta *jingo* gisako nahasketak (in Arauak: 794).

## 6. Euskaltzaindiaren emana

Laburra izan zen Euskaltzaindiak garai hartan ibili zuen bidea, eta guztiz apurra ekarri zuen onura. Arau gutxi batzuk baizik ez zituen eman ortografa alorrean (in *Euskera* 1953: 27):

- a. Inprentako arazoak tarteko, tiletaren ordezt letraz bi-koitzak erabiltzeko "baimena" eman zuen: *dd, ll, rr* eta *tt*.
- b. Atzerriko herri eta pertsona izenak, eta nazioarteko hitzak, jatorrizko grafian idaztea erabaki zuen: *Quebec*.
- c. Hego Euskal Herrian ere *h*-a erabiltzeko "baimena" *-ez* agindua— eman zuen, baina kasu jakin batzuk baizik ez: bokal artean (*ahate, chore, zuhurra*) eta adiera banako hitzak bereizite aldera (*ori / hoi, ura / hura, ari / ahari*).
- d. Bustidurari dagokionez, ez zen araurik ezarri, baina Hegoaldean, behinik behin, *baño* gisakoak idaztea erabaki zen, busidura eragiten zuen *i* bokala eta guzti, eta *baño* gisakoak gaitzetsi.



eta egoki ere bai, beste hizkera batzuk darabiltzagunean: dela euskalkia, dela lagunartekoa, dela beste edozein. Azken batean, ahoskeraren gaineko arauak eman zituenean bezala jokatu behar luke Euskaltzaindiak arlo guztietan: hizkera motak eta hizkera mailak bereiziaz, eta arauak horren arabera emanaz.

Esan dezadan, honen harira, euskara “onarekin” berdintzen direla askok euskara batua. Hori dela eta, *erori zait* da “ona”, eta *jausi jat* edo *bota dakir* “txarrak” edo “desegokiak”. Gauzak ez dira inondik inora horrela. Oso bestela da kontua: *erori zait* da euskaldunik gehienek eta Euskal Herri gehienean erabiltzen eta ulertzen dena, eta horrexegatik aukeratu da euskara batuan; ez zuzenagoa edo jatorragoa delako. Aldiz, mendebalean baizik ez da erabiltzen *jausi jat*, eta Nafarroako Sakanan baizik ez da erabiltzen *bota dakir*, eta Nafarroako Sakanan baizik ez da erabiltzen *jausi jat*, eta horrexegatik baztertu dira euskara batutik: eremu murritzekoak direlako, ez okerrak edo baldarrak direlako. Eta, jakina, euskara batuan *erori zait* erabiltzea egokiena den bezala, mendebal barruko jardunean *jausi jat* erabiltzea zuzena eta egokia da, eta baita Sakanan *bota dakir* erabiltzea ere.

Garbi dago arauak zabalitzeko eta betearazteko bidea zehaztea ez dagokiola, berez, Hizkuntza Akademia bati, baina gurean, gauza horietaz arduratzen den besterik ez dagoenez, eta oso iritzirik okerrak zabalitzen ari direnez, Euskaltzaindiak berak hartu behar luke erantzukizuna. Eta bada horren premia gorria, irizpide bateratu ezak oso ondorio beltzak ekartzen ari delako gure artera.

Gizartean Euskaltzaindiari egin zaion bigarren kritika dela eta, hau da, Euskaltzaindia benetako arazoei aurre egin beharrean txikikerietan dabilela, uste horrek izan dezake bere egi-

aren zaita. Esate baterako, historian zehar izan diren aita santu guztien izenak euskaraz nola diren zehaztea ez zait iruditzen inolako lehenetasuna. Dena dela, metodologia zuzena da gauza errazak lehenbailehen konpontzea, eta zailak geroko uztea. Gauza errazak konpontzeko erabili den bidea lagungarri gerta daiteke, gainera, zailagoi ekiteko orduan. Baina aitzakiak aitzakia, Euskaltzaindiak arreta handiagoa jarri behar luke hiztunen kezka eta buruhausteetan, eta horiei lehenetasuna eman.

## 5. Zenbait ondorio

Ezina zirudiena egina ikustea oso da pozgarria, eta horixe da euskara batua: XVI. mendez geroko amets gauzatu ezina. Bide asko ibili da harrezkero, egitasmo ugari saiatu dira eta, atzera-aurrera guztien ondoren, lortu da helburua. Lorpen handia euskara txikiak eskuratu duena, eta horren gainean egin nahi ditut zenbait gogoeta.

### 5.1. Euskara batuen egitura

Erdialdeko euskalkian oinarritu da, gehienbat, euskara batua, eta zuzena da erabakia. Hizkera estandarra eraikitze-ko oinarriko baldintzak betetzen ditu:

- Hizkuntzazkoa, erdigunean dagoenez, bera delako euskaldun guztiendako ulerterrazen eta ikasterrazenetakoa.
- Soziolinguistikoa, XVIII. mendez gero, euskara giputza izan delako ospetik handienekoa.

Zuzen k. (2005), Euskara batua.  
Ezina oinarri gina. Donostia.  
Sakan.

c. Demolinguistikoa, erdialdeko euskalkia delako, mendebalekoarekin batera, hiztun kopururik hazienekoa.

d. Sozioekonomikoa, hiri sare zabala dagoelako Gipuzkoan.

e. Literatura tradizioa, XVIII. mendetik hona, euskalki horrekek izan duelako literatura nagusitasuna.

Xehiago begiratuko diegu arrazoi horiei.

Begi bistakoak dira hizkuntzazkoak: Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroako mendebaleko hizkerak dira euskaldun guztiendako ulertterazetak. Erdigune horretatik urrundu ahala, ugartitu egiten dira ulertzeko zailtasunak, Bizkaira eta Zuberoara iristen garenean, gehienbat.

Euskara giputzaren ospez luze mintzatu naiz dagoeneko (in Zuazo 1988, 2000, 2003), eta ez naiz gai horretara itzuliko berriro. Gogora dezagun, dena dela, euskara batua egin aurretik ere euskara giputzcan ikusi zutela askok eta askok batasunaren giltza: Juan Antonio Mogelek, Bonaparek, Azkuek, Belustegigoitiak, Campion-Broussain bikoteak, Sebero Altubeck... eta, jakina, giputz jatorriko beste zenbaitak.

Ospe hori dela eta, euskara giputzcan idatzi duten kanpoko idazleak ere izan dira: Juan Antonio Mogel lehenengo, eta Txomin Agirre, Pierre Lhande edo Jon Mirande geroago. Hego Euskal Herriko misiolari eta bertsolariek, eta berean, euskalki horixe izan dute gogoko.

Dena dela, hiztun kopurua da euskaririk sendoen eta, hain zuzen, euskara batua egin berrikan, euskaldunak zenbatzeko saioa egin zuen Pedro Irizarrek. Euskalkia bereizi zituen, Bonaparteren sailkapena aintzakotzat hartuta, eta hauxe izan zen ondorioa (Irizar 1973: 66-67):

EUSKALKIA	HIZTUNAK	EUSKALDUNEN %
Bizkaitarra	200.480	37,57
Gipuzta	200.050	37,49
Ipar. goi-nafarra	51.000	9,56
Hego. goi-nafarra	440	0,08
Lapurterra	22.970	4,30
Mende. behe-nafarra	22.790	4,27
Eki. behe-nafarra	23.760	4,45
Zuberotarra	11.090	2,07
Zehaztugabeak	915	0,17
<i>Guztira</i>	533.495	100

Taulak erakusten duenez, agerikoa da euskara giputzaren eta bizkaitarraren nagusitasuna. Hortxe dago euskararen indarra, eta hortxe, beraz, euskara batuaren ardatza. Gaur egun zeharo zentzugabea da lapurtarraren gainean eraikitzea hizkuntzaren batasuna. Jakina, Lapurdiko literatura zaharra beti izan beharko da gogoan, eta beti hartu beharko da kontuan Ipar Euskal Herriaren osotasuna, baina, zenbait aukera egiteko orduan, begi bistakoa da zaindu beharreko norabidea.

Nabarmentzekoa da, azkenik, Gipuzkoaren egitura hiritarra. Hiri hazietako hizkera sari geratu da estandarren oinarri; halaxe izan da Pariskoa Frantzian, Lisboakoa Portugalen, Bartzelonakoa Karalunian edo Londreskoa Ingalaterran. Bilbo da Euskal Herriko hiri nagusia, baina ez da euskalduna, eta Euskal Herrian ez dago horrelako nagusitasunik duen besterik.



Berezia da, ostera, Gipuzkoaren egitura. Ez dago erabateko nagusitasuna daukan hiri bakarrik, baina hainbat hirigune hazi daude herrialdean barrena: Irun-Hondarribia, Errenteria-Lezo-Oiartzun, Donostia-Pasaia, Lasarte-Herraini-Andoain, Tolosa, Beasain-Ordizia, Zumarraga-Urretxu-Legazpi, Azkoitia-Azpeitia, Zarautz-Orio-Getaria. Hirigune horiek hein batean lotuta eta bata bestearekin uztartuta daude, eta Gipuzkoa bere osotasunean dela hiri handi bat esan daiteke.

Baina erdialdeko euskararen onurak aipatu eta erakutsi ondoren, mendebaleko euskaraz mintzatu nahi nuke. Errazegi utzi da alde batera. Egia da berezia eta desberdina dela, eta gainerako hiztunendako urruna eta arrotza, baina hazia da bertako hiztunen kopurua. Herri handi samar zenbaitetan, gainera, euskarak badu indarra: Ondarroa-Markina-Lekoito, Durango eta bere ingurua (Berriz-Zaldibar eta Abadiño-Elorrio), Zornotza, Galdakao, Gernika-Bermeo, Igoerre-Lemoa, Mungia eta bere ingurua, eta administrazioz Gipuzkoa izan arren, hizkuntzaz eremu horretakoa den Debabarrean, hau da, Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza, Oñati, Bergara-Antzuola-Elgeta, Soraluze-Eibar-Elgoibar...

Mendebaleko euskara alde batera uztearen errua ez zaie, dena dela, beti "bestecei" leporatu behar; bizkaitar zenbaitek ere izan dutelako horretan erantzukizuna. Euren euskalkiko gauzarik bitxienak eta berezienak baliatu eta indartu dituzte sarritan, sekula izan gabeko euskara sortzen eta asmatzen jardun zuten XIX eta XX. mendeetan eta, XVIII. mendetik honakoan, Euskal Herriaren eta euskararen osotasunari ezizkusi egin, eta euren herrialdean eta euren euskalkian itxi dira behar baino gehiagotan.

Azkenaldi honetan, ostera, gero eta gehiago dira bide zuzenetik dabilzanak, eta euskaldun guztiok jasotzen eta eskertzen ditugu horren onurak. Euskaldun guztion eskutara iritsi dira mendebaleko idazleen izkribuak: Joseba Sariñonandia, Juan Martin Elexpuru, Jon Arretxe, Unai Elorriaga, Julen Gabiria, Kirmen Uribe, Jasone Osoro, Sonia Gonzalez, Unai Iturriaga, Igor Estrankona, Urzi Urrutikotxea... Euskal Herri osoko plazetan entzun dira, era berean, mendebaleko bertsolarien abotsak: Xabier Amuriza, Jon Lopategi, Enbeitarrak, Iratxe Ibarra, Igor Elortza, Unai Iturriaga, Arkaitz Estiballes, Paia anaiak, Etxahun Lekue... Baita mendebaleko musikarien doinuak ere: Mikel Urdangarín, Ken Zazpi, PLT, Urgabe... Euren hizkeran oinarri hartuta, eta euren hizkera hori euskararen osotasunean txertatuta lortu dute Euskal Herri osora hedatzea eta Euskal Herri osoak onartzea.

Norbere hizkera bizia—ez ametsetako—komplexurik gabe eta naturaltasunez erabiltzea, eta norbere hizkeraren benetako aberastasunak—ez bitxikeriak eta txokokeriak—euskara batuan modu orekatuan sartzea da, nire iritzian, bide zuzenetik ibiltzea. Eta bide horretatik ibilita, asko da mendebaleko hiztunek, euren buruari lehenengo, eta Euskal Herri osoari gero, eman diezaioketen laguntza.

## 5.2. *Euskara batuaren onurak*

Euskara batuak bide luzea egin du 1964tik hona, eta agerian daude, eta neurtzeko moduan, ekarri dituen onurak. Honako hauek iruditzen zaizkit denetan esanguratsuenak:

a. Gainditu egin dira euskaldunen arteko ezin ulertuak: euskara batua dakitenek ez dute batuk bestearkein jardureko erdarara nahitaez jo beharrik.

b. Euskara espartu guztietara zabaldu da: irakaskuntzara, administrazioa, hedabideetara, literatura idatzira, Internetara... Ez da, dagoeneko, etxe edo herri barruko ahozko jarduneko mintzaira soila.

c. Euskaldun berrien kopurua ikaragarri handitu da eta, euskara txikiak bizirik iraungo bazuen, ezinbestekoa zuen haztea eta zabalzea.

d. Euskararen mugak desagertu egin dira. Ez da, dagoneko, menderik mende geroz eta txikiago zen hizkuntza, geroz eta muga estuagoak zituena, iraganeko mapak bata bestearkein alderatuta ikus dezakegun bezala. Euskara Euskal Herri osora zabaldu da: Bizkaito Karrantzara, Ebro ibai ondoko eskualde arabar eta nafarretara, Pirinio magalako Zaraitzu eta Erroñkari ibarretara, Baiona-Angelu-Miarritze hiribilgunera... Baina hor ez ezik, Madrilen, Bartzelonan, Parisen, Londresen, Poznanen, Moskun, Tokion, Buenos Airesen, Renon... nonahi daude euskaldunak. Euskara ez da, dagoneko, Euskal Herriko muga estuetan bizi den hizkuntza, mugarik gabea delako *Euskararen Herria*.

e. Hizkuntza eta Herria bere osotasunean ikusten hasi gara. Ez gara, dagoeneko, norbere euskalkira eta norbere herrialdera begira bizi, eta Pirinio mendiak ere ez dira, dagoeneko, iraganezinezko hesi. Dena dela, bada oraindik zer hobetua eta zer aldatua, Ibon Sarasolak (1997) zorrutz eta zehatz erakutsi duen bezala.

f. Benetako *hizkuntza* da euskara. Ez da, dagoeneko, euskaldunek eurek ere ulertzen ez dituzten *dialekto sorta*. Hizkuntzek izan ohi duten prestigioa bereganatzeko urratsa egin da.

### 5.3. Arrahastaren arrazoiak

Nabarmentzekoa da, azkenik, euskara batua Francoren diktadura militar basatiaren azpian eraikitzen hasi zela. Garai hartako unibertitateetan ez zen euskal filologiarik, ez euskararekin zerikusia zuen ezer ikasleko eta jendea prestatzeko aukerarik, eta egoera beltz eta zail hartan euskara batua arrera egin izanak badu bere esangura berezia. Hona hemen zenbait arrazoi:

a. Hilzorian zegoen euskara. Bertan behera utzi edo bizitzen irtenbidea, eta ahalegin guztia egin zen bizitzearen alde. Diktaduraren gogortasunak berak bulztatu zuen jendea horretara.

b. Abian jarritako ekintzak gauzatzeko ezinbestekoa zen euskara batua. Ezinbestekoa ikastolek, gau eskolek, hedabideak, literaturak aurrera egiteko.

c. Batasunaren egitasmoa gauzatzeko goren mailako hizkuntzalaria azaldu zen: Koldo Mitxelena.

d. Mitxelenen ondoan itzal eta eragin handiko lagunak izan ziren, Txillardegi eta Gabriel Aresti bereziki. Baita emandako agindua betetzeko prest zegoen jende multzo zabala ere: idazleak, irakasleak, kazetariak, euskaltzain talde bat—euskaltzain guztien erdia inguru baizik ez, zoritxarrez— eta era guztietako euskaltzale mordoak.



e. Teknikoki zuzen eta egoki egituratu zen euskara baita. Aurkariek ikusitako akatsak (*h*-a sartzea eta bustiduraren zeinua kentzea) oso azalekoak ziren, ortografiari zegozkionak, eta ez ziren, gainera, inolako akats, euskararen osotasunari begira hartutako erabaki guztiz zuzenak baizik.

## GEROA

Zazpigerren ahizpa, txipia, lamiña  
Zure bularretarik jin zeitan hizkuntza  
Euskaldün izareko behar den bihotza  
Züberera dütt horrez arimaren ama.

Gizonak gizontzeko behar dü bi dama  
Batak deio bizia, besteak lagüntza  
Bietarik beitate frütüen hezkuntza  
Emazte nafarra dütt, ene haurren ama.

Güziak desbardinak, denak euskaldünak  
Etxahunek erranik, zazpiak bat gira  
Etxeki beraz ama, baita sci lagünak.

Tokian zübereraz, kanpoko batüan  
Biak behar düttügü, zoin bere leküan  
Etsai bakoitxa dügü erdaren sobera.

Pastorala zübereraz  
Telcbista batueraz  
Bien artean abal bezala, baina gehien bat euskeraz.

*Jean-Louis Davant*